Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Luzia Larrozea Estibaliz Oka

Bermeo, Bizkaia
(1920-2014)



Aurkibidea

Biografia



Baztarren jaio eta hazi zen. Aita bermeotarra zuen eta ama Arabako Kanpezukoa. Sei neba-arrebatatik gazteena izan zen. Gazterik gelditu zen guraso barik, ama gerrako ebakuazio egunean bertan hil zitzaion; hori dela-eta, ahizpa batekin hazi zen. Gerratean, italiarrek hartuta zuten batzokia garbitzera derrigortu zuten abertzalea izateagatik. Bermeoko "Casa del niño"n eta Gasteizko familia batean neskame lanetan aritu zen. Neskatila lanetan hasi zen gazte-gaztetatik. Bere umetako lagun eta koinata Julita 'Ispo'gaz batera egin genion elkarrizketa.

Zintak

BRM-083

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-12
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Elizondo, Iratze

BRM-084

- **Proiektua**: Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-07-12
- **Iraupena**: 56 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Bermeon denek zuten ezizena

- **Erref**: BRM-083/003
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:03:50. **Bukatu**: 00:05:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Luziaren aitaren ezizena Oka zen eta berak ere bera jaso du. Bermeon askok dute ezizena, ezizenez ezagutzen ziren-eta.

2. Etxeetako ateak denetzako zabalik

- **Erref**: BRM-083/005
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:06:32. **Bukatu**: 00:08:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
Antzina denak ezagutzen ziren Bermeon. Etxeko ateak zabalik egoten ziren, denak ziren lagunak-eta. Etxera sartzeko "Ave María Purísima" esan behar izaten zen.

Transkripzioa
- Atziñeko Bermio zelakue zan?
- Luzia: Atziñeko Bermio ez daitz ba zelakue ezan dan atziñeko Bermio.
- Julita: Atziñeko Bermio lagun gehidxau orain baiño.
- Luzia: Orain dau kanpotar gehidxau bermiotarrak baiño. Ezetu bez ez gara eitten alkar, kanpotarran pasiñugaz.
- Julita: Ta lagun be gehidxau, alboko atie be igiritte.
- Luzia: Kisketa ganien.
- Julita: Ta geurie be igiritte ta trankil.
- Luzia: Orain ez.
- Julita: Orain ez.
- Luzia: Gitxi-gitxi badan be zerrajie etxa biher dozu /bizu/, bandidugaittik.
- Ta lehen kaletako atiek-eta?
- Julita: Igiritte, kisketa ganien ta igiritte, giltzik be ez duun biher izaten ezan /bizatezan/.
- Luzia: Antziñe ez zan oten zan horrelakorik, kisketa ganien itxi ta zeuk guzun lekure tire egun guztiko. Han okitzen ezan zun, baie gaur ezin dxe.
- Ta kisketak-eta zelakoak izaten zien?
- Luzia: Normala.
- Julita: Normalak.
- Oingo modukoak?
- Luzia: Ez, ez.
- Julita: Ez, oraingulakuek ez.
- Ta zelakoak ziren ba?
- Julita: Etxie?
- Luzia: Atie?
- Zelakoak ziren kisketak?
- Luzia: Burdizkuek, burdizkuek okitzen zauen kisketa.
- Ta atie zabaltzeko ta?
- Luzia: Zabaldu, kisketa ganien itzi zu ta listo, ta zer datorren ba... "Ave María Purísima” esan da barrure. Hori esan barik ez.
- Ha ez!
- Julita: Baie orain ez e!
- Luzia: Orain ez dau horrelakorik antziñen. Igual ez badiño hori amak, atzera ia nor itzi dozun kolarrien esanda "Ave María Purísima", hori esan barik ezin sartu etxera, "Ave María Purísima" ta barrure. Ostantzien ez dau entradarik. Beste mundo bat.

- Julita: Baie ni atziñeko kalera bizitzen dxun ingo leki nai. Gaztelure ni neu. Beti gusta dast. Aiztie bizi de, aizte txikidxena.
- Lucia: Irene.
- Julita: Baie, neuri beti gusta dast bera kalie.
- Zer deko ba, diferentie-edo?
- Julita:- Ba bertan dxaidxo zaralez ta bertan ibil zaralez zeure gaztetasune olgetan.
- Luzia: neure denpora guztidxe bertan.
- Julita: Plazuleti da-ta Gaztelun tabernak dauzen lekuen ba.

3. Beti beharrean, edozertan

- **Erref**: BRM-083/007
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:10:53. **Bukatu**: 00:13:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Koinatak izan aurretik ziren lagunak Julita eta Luzia. Portua ere elkarregaz aritu ziren beharrean. Julitari sekula ez zitzaion eskola gustatu nahiz eta mojekin ondo konpondu. 16 urte zituela, Luzia "Casa del niño"ra joan zen neskame lanetan. Gerora saretan eta neskatila moduan ibili zen. Luzia 3 hilabetez egon zen Gasteizen neskame moduan.

4. Emakumeek ere dirua irabazi behar zuten

- **Erref**: BRM-083/010
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:15:11. **Bukatu**: 00:17:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Bi bapore izan zituzten etxekoek. Gizonek egiten zuten bertan lan, baina ordaindu emazteak ere egin behar izaten zuen. Edozer egiten zuten dirua lortzeko, baita zapatak saldu ere. Andrek kontrolatzen zuten etxeko ekonomia.

5. Neskatila beharrak

- **Erref**: BRM-083/022
- **Iraupena**: 0:02:59. **Hasi**: 00:35:33. **Bukatu**: 00:38:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
neskatila moduan aritutakoak dira Luzia eta Julita. Beraien eginbeharra zein zen azaltzen dute. Kofradira eramaten zuten arraina, eta bertatik saltzen ziren fabrikara. Buru gainean eramaten zituzten otzarak.

6. "Loidxie"n erabilera

- **Erref**: BRM-083/024
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:39:10. **Bukatu**: 00:39:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
"Loidxie"k ontzien bodegak dira. Bertan zer gordetzen zuten azaltzen dute.

7. "Loidxe" asko

- **Erref**: BRM-083/026
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:41:32. **Bukatu**: 00:43:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:
Beraien familiako "loidxie", bodega, Erriberan zegoen, baina beste leku askotan ere egoten ziren. Enbarkazio askoz egoen Bermeon eta beraz, baita "loidxek" ere.

8. Abertzaleak izan arren errepublikazaleekin ezkondu

- **Erref**: BRM-083/029
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:45:31. **Bukatu**: 00:47:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Beraien etxekoak abertzaleak ziren, baina beraien senarrenean errepublikazaleak. Hasiera batean, Julitaren amak "baltza"rekin, errepublikazalearekin, ibiltzearren errieta egin zion.

Transkripzioa
- Julita: Gu orduen imiek, ta gu ba nazionalistek, ta gure gizonak errepublikanuek. Ta gure etxera etorri aitxe itsosotik.
- Luzia: Atziñen polikienganien Ape Marie!
- Julita: Ta beti haulan, beti haulan bekokidxegaz. Ta nik haulan amari: "ama, gure aitxek egunien egunien itxosotik bekokidxe dakar, ze indxatso ba?" Ta berak entzun: "ze in dxasten? Baltzakaz zabiltzizilako".
- Luzia: “Baltzak” errepublikanuek “baltzak”, “baltzak” esaten ezan dotsoien.
- Julita: "Baltzakaz, baltzak die" diñotsat. "Ta bai neuri esan dostie baporien, alabak han dabiltsuz, alaba bidxek baltzakaz" Neuk halan: “harek gizonak okin dxauie, dakoie inbididxe, eurek ein dosku errekadue ta eurek ez dulez guzan ta guzan dulez haunek ba, orain eurokaz gabiltzez”. Ta gero sumiñeri zemat gure, baltzari zemat gure, bera nazionalistie ezan

da benetakue gure aitxe, benetako nazionalistie. Bai, Estellara be dxun zien aldeano dxantzitxe ta harrike ata zauien, kuadrillie dxun zan ta harrike atara, baie ezan da nazionalistie ta baltzakaz ta ikusi! Pentsa bez! ta gero sumiñik onena. Sumiñik onena gero baltza. Haulan.

9. Errepublikazaleei barre egiten zieten

- **Erref**: BRM-083/032
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:49:01. **Bukatu**: 00:52:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Errepublika sasoian mitinetan eta manifestazioetan parte hartzen zutenei barre egiten zieten. Abertzaleei, aldiz, ez zieten akatsik aurkitzen. "Putasio" errepublikazalea aipatzen dute, Julita bere alabarekin ibili zen eskolan. Eskolan ez zuten aldaketarik sumatu errepublika heltzerakoan.

Transkripzioa
- Julita: Mitiñe eitten bai etorten ezan die, ta gu geuk, gaztiek ezaten ezan garizelez "Ei bitu, datozen dan-dan-danak horrek komunistek eta errebolu zionariuek danak die kojuek, danak die juosabuek". Ez jatzu akordaten?
- Luzia: Tuertuek, tuertuek juosabuek aitzakidxek.
- Julita: Geuk aitzakidxek ataten. Geu imiek ezan, geu gaztetxuek ezan, ta geuk dxakin kontraidxuek dizela haurek ta geuk esaten "horrek beitu dan-danak die edo kojuek edo tuertuek". Haulan etorten ezan dilako edo egune pasaten edo manifestaziñuen edo txarrauren bat eitten etorten ezan dilako, baie geu ba nazionalistek beti.
- Ta eskolan eta zuek diferentzirik igerri zenduen errepublika sasoien?
- Julita: Ez nik, ez. Ta ni Putasion alabigaz ibil naien eskolan, atziñeko Putasio.
- Nor zan Putasio?
- Luzia: Harek zer daki!
- Julita: Putasio deittuten ezan dotsoien, Putasio berari. Haurrek ezan die anaidxe bi, bat etorten da Bermiora ontze be zerak eta eitten, Bermioko lamerie be berak ein zauen. Hortik bizi de Donosti mandatik, Benitok amistadie dako nehiku beragaz.
- Luzia: Hektorregaz?
- Julita: Nestor.
- Luzia: Hektor Bastarretxea.
- Julita: Nestor Bastarretxea.
- Bai.
- Julita: Haren lehengusiñie ezan da, haren tio ezan da Putasio. Putasio izana imin dotsoiena.
- Luzia: Izizena.
- Julita: Izizena imin dotsoiena errepublikanuek.
- Luzia: Ta gehidxau Putasio.
- Julita: Ta gehidxau Putasio.
- Luzia: Lehen izen barik beti Putasio. Ikusi zu Putasio, ikusi zu Putasio?
- Julita: Gero Putasio...
- Luzia: Izizena.

- Julita: Ta nazionalistek datozenien Ape Marie! badakizu zelako mutillek dizen? badakizu zelako geuk, geuk bakizu zelako. Dana topaten ezan dun nazionalistentzako dana ondo.
- Luzia: Guriek beti onak, iñonak beti korkobaduek.
- Bueno esan dozu eskolan...
- Julita: Eskolan haren alabigaz ibiltzen eza naien ni ta Putasion alabigaz, Iziarregaz. Ba eguno neu ta bera lagun handidxek. Jardiñera dxutigaittik eitten ezan dotsaten trentxa bi okitzen ezan dotsuz lazuek kendu, berak esan da eitteko, haulan lazue jardiñera bota ta orain bille dxun bihar dozu / bizu/ ta berak haulan mojieri ta neuk be bai neuri da ta bille dxutiittik. Azkanien monjiek eitten ezan doskun patiñe-ta garbiten bota, bidxok, baie bertan, errepublikano, nazionalistek eta ez, eguno bez, eskolan eguno bez.
- Ez baia eskolatan ta kurtzak eta ez biezan kendu, kurutziek-eta?
- Julita: Bai kurtze santien...
- Ez baia kendu ez zauien kendu errepublikan ta erregien erretratuek eta horrek kendu?
- Luzia: Gaztiak orduen.
- Julita: Orduen e!
- Luzia: Orduen erregien erretratuek-eta.
- Kurtziek eta kenduta ez.
- Julita: Nik ez dot ikusi erregien erretraturik. Kurtziek eta kendute bez. Hori esaten ezan dauien kanpuen, baie gure herridxen ez, gure herridxek neuk daitzela.

10. Abertzaleak ez ziren 'Centro Republicano'ra hurreratzen

- **Erref**: BRM-083/034
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:53:06. **Bukatu**: 00:56:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:
Bere osaba bati txikiteoan zebilela errepublikazale batek labana sartu zion. Errepublikazaleak Lamerako kafetegi batean batzen ziren. Abertzaleak ez ziren sartzen horra, ezta ondotik pasa ere. Behin andre batek harriak hartzeko esan zieten bertara botatzeko, baina beraien mutil-lagunak barruan zeudenez ez zituzten bota.

Transkripzioa
- Julita: Errepublikanuek, errepublikanuek, gure aittek eguno be ez dau gure ezan /guzan/ etxien, eguno bez, baie neu kanpotik entera. Lagunek dxun zien ba txikiteuen, auntxek ibiltzi lez, ta ein dotsoien bateri, neure tio bateri, kutxillue sartun batek konturetu barik ta odoletan planta ta "e, e" haulan hasi geure tio. Geure aitteri zoratu ein dxatso, baie esan bez berak nork ein tson. Gure aittek be esan bez nork ein tson, ezan die errepublikanuek. Hamen okin dxauie, han juidxe errepublikanuek, ta bapora be bada nazionalistie handik urten errepublikano lekora. Hori eitten ezan daui!
- Luzia: Atziñen politikigaz.
- Julita: Bai baie ostantzien haulan, hauri bai. Ta dendie be igual errepublikanuna ta horra geu be ez gariz dxungo, nazionalistek dauzeniko,

hauna.
- Ta on zan Zentro Errepublikanorik-edo?
- Luzia: Bai, Zentro Republikanue Lameran.
- Julita: Baie ez da izan kafe bat baiño.
- Luzia: Kafie, baie.
- Julita: Bertan batzien izan die.
- Luzia: Baie banderie bertan. Haren banderien azpittik iñoiz pasa bez. Beste losara pasa ta bueltan, haren banderien azpittik pasa ez, ta pentsa bez. Neu ez, ez nai pasa sekule bez! Eitten ezan doten kantiñe ondora dxuen, Juaneneko kanpoko mandara aillega ta abante. Atziñe politikien ganien total on da...
- Julita: Ta andra batek esan doskun guri, neuri ta aiztiri ta beste aizte biri, saritan on gariz laurok, saritan aizte bi gu ta beste aizte bi saritan, ta andra batek: “zuek laurok tire orain biharra akaba du te Frantzunatxetara ta harridxekaz bete partikarak ta republikanora tire ta harridxe lantza!”
- Luzia: Kaferi.
- Julita: Dxuen ta gure aiztiek haulan: "nik ez dot eitten", "zer ba?" "Esteban dauelako han" Nobidxue berana.
- Luzia: Nobidxue.
- Julita: “Nik ez dot lantzako”, "Neuk bez". Ta gu pasa, laurok. Beste egunien: “ze in zu ba?" "Lantza du", "ta iñor anpara zue?" Neuk halan, honek dako balora. “Guk zer dakigu anpara badauien ba? Guk lantza duu”.
- Luzia: Guzurrek.
- Julita: Gero beste egunien dxun ta neure nobidxue bertan. Neuk lantza harridxe? nobidxue dxoteko? Ez nik. Ta ez duu ein eguno, baie gure aldien zaharra dana, hildxe dau atziñerik bera andrie, baie zaharra izan dala bera, balor txarragaz esaten ezan dosku hartziko harridxek ta dxuteko ta hareri botateko kristelak hausteko. “Ta barrun dxoten badauen?", "Ba dxoten badauen, dxo". On dalako bertan Lameran ba, kafien albuen, kafie ezan da bera be ta, leko onien on da, baie ez du ein eguno. Eruen bai indxu harridxek, berak andriek esan da, baie lantza ez.

11. 'Bermeoko pildainistak' abestia

- **Erref**: BRM-083/035
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:56:36. **Bukatu**: 00:59:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Abertzaleei "Pildaiñistak" deitzen zien. Luziak horri buruzko abesti bat abesten du. Lehengo abertzaleak gogorragoak zirela diote.

Transkripzioa
- Luzia: Atziñen nazionalisteri esaten ezan dotsoien, pildaiñistek.
- Julita: Pildaiñistek.
- Luzia: Pildaiñistek.
- “Bermioko pildaiñistek dxuen diez Estellara… (Julita: Neure aitxe-ta)
Bitoridxeko entradan harrike atara.
Bermioko pildaiñistek dxuen diez Estellara,
Bitoridxeko entradan harrike atara.
Bat eta bi, hiru te lau,

banderie gorde ta ekar dau,
bost eta sei, zazpi zortzi,
bizirik itzi tsoienian bere pozik etorri,
bizirik itzi tsoienian bere pozik etorri.”
- Julita: Egidxe da hori!
- Luzia: Pozik etorri. Hori kanta dot imetan ta ez dast ahaztuten hori kantie. Etxien […] hori kantie, Bermioko pildaiñistek jun diz teillara.
- Julita: Bai, pildaiñistek ezan garizen, gu peldaiñistek ezan gara.
- Luzia: Gu pildaiñistek izan gara, baie orduen beste klase batera kantaten ezan duun.
- Julita: Ta kaleko andrak be pildaiñistek ezan dizenak.
- Luzia: Orduen pildañistek esaten ezan tsagun.
- Julita: "Entzun zu zer diñozu zuk, aizte bidxok ba?" Niri ta aiztiri, "errepublikanukaz zabiltzie ta". “Ta zer?”
- Luzia: “Aquellos tiempos”...
Julita:- Ta horrek dako zer ikusirik?
- Ta pildaiñistek zer dala ta?
- Julita: Pildañistek eurek ezizena imiñi.
- Luzia: Ezizena imiñi pildañistek. Ta horreitxik kantaten zan: “Bermioko pildaiñistek dxun die Estellara Bitoridxeko entradan harrike atara”.
- Julita: Neure aitxe koitxadue ta dxun zin.
- Luzia: “Bat eta bi, hiru eta lau, bost eta sei, zazpi ta zortzi, bizirik itzi tsoienien pozik etorri”. Gero banderie gordeta be ekar dauila.
- Julita: Neure aitxek be kantaten ezan dauen ta hil dxenien be nik ein tsaten aitxeri berak gure ezan /guzan/ dauelez atizak, etxien okitzen ezan duun orduen hille ta amari esan tsaten: "ama, hau ta hau eingo dot". Basta ke geure aitxek gure ezan /guzan/ dauen ta ikurriñe, etxien okin duun ikurriñe, aitxeri bota ganien haulan ta atie zarratu, enterraten eruteko.
- Luzia: Atziñen politikien gaiñien buf!
- Julita: Bai.
- Luzia: Orain ez.
- Julita: Orain.
- Luzia: “Si te visto no me acuerdo”.
- Julita: Orain ez dau lehengo beste ha, baie lehen ezan da gogorrak. Lehengo pildaiñistek ezan die.
- Luzia: Lehengo partiduek-eta.
- Julita: Gogorrak ezan die.

12. Gudariak jipoitu ostean, Tonpoitik botatzen zituzten

- **Erref**: BRM-083/037
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 01:00:05. **Bukatu**: 01:01:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Batzokia errekisatuta izan zuten soldaduek. Eta Luzia bertako soldadu italiarren zikinkeriak garbitzera behartu zuten. Batzokian bertan, gudari asko ikusi zituen jipoitzen; jipoitu ostean Tonpoitik behera botatzen zituzten.

Transkripzioa
- Luzia: Kartzeleruek Batzokidxen ta ni, nazionaliste moduen kastigeta

harek batzokidxen italianuen kakak eta garbittuten on naitzen. Santi Kulo etor dasten edadeko bat, morrosko bat ta diñost: “Okatxu”, “Okanekue” esaten ezan doskuien guri, “zuk badakizulez hameko barri ekarristazu baso bete ur” dxun naitzen koziñera hartu nauen baso bete ur ta dxun naitzen Santi Kuloñe ta hori Koloma nagusidxe faxiste nagusidxe.
- Julita: Faxistie.
- Luzia: Dxo basue ta beherin ganera. “Arrimeten bazara horrek gaiñe zeu be bertara zuez”. Ta danak Santi Kulon ala, bereaittik...
- Julita: Baie egarri ezan da koittadue ta ez tsolez emoten ezan urik.
- Luzia: Baie atziñen politikigaittik ta buf, imiñi koittadue. Furfurrenen erretratuen azpidxek horrek gudaridxek manga [iridxillegaz] zakun barruen sartun da han daru Tonpoittik behera!
- Julita: Tonpoittik behera.
- Luzia: Zemat gudari ikusi duz holan eitten batzokidxen neuk bertan nauelako orduen, batzokidxe garbittuten kastigo modure "como separatista" on naien, gazte baie.
- Hori gerra sasoien, gerra ostien edo noz?
- Luzia: Gerran.
- Gerran.
- Luzia: Bai. Ta harek koittaduek eitten ezan dotsoien dxo [isiegaz] sartun plastiko marroi baten barruen sartun ta eruten ezan dau "a saber" Tonpoittik behera.

13. Batzokia garbitzera behartu zuten

- **Erref**: BRM-083/039
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 01:02:01. **Bukatu**: 01:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Luzia izan zen batzokia garbitzen aritu zen bakarra. Tuneleraino joan behar izaten zen ur bila. "Separatista" izatearren zigortu zuten Luzia.

Transkripzioa
- Asko egon ziñien garbittuten zikinkeridxe?
- Luzia: Batzokidxe garbittuten neu bakarrik. Bai. Ta ordenie ure bez etxateko bertatik. Tunelera dxun bihar ezan ezan /bizazan/ doten ure bille ta tuneletik ekarri ure.
- Tuneletik.
- Luzia: Ure, ure garbittuteko. Iturridxe on arren bertan, itzi bez. "Como castigo" hauri.
- Ta nora arte dxun bihar ezaten /bizaten/ ziñen?
- Luzia: Tunelara hara.
- Julita: Ez asau, baie korridu ein bihar.
- Luzia: Antziñen tunela oten ezan da ta oten ezan dun ure etorten ezan da frakatatik, handik hartun ure ta gora.
- Julita: Astilleridxen dauen lekuen punten, hametiko punten, Kasinuen aurrien.
- Luzia: Politikigaittik atziñen Ape Mari! Kantaten ezan duu “Bermioko pildaiñistek”.
- Eta beste andra batzuk egon zin beste gauza batzuk garbittuten?

- Luzia: Ez, ez, ez orduen Maria Bizkaiak etxa nauen ni "por separatista". Etxa nauen horra Batzokidxe garbittuten.
- Ze egon zien italianuek batzokidxen?
- Luzia: Italianuek on zin bertan, ta lohidxe guztidxek eitten ezan dauien bertan ta harek garbittuten ba ni etxa nauien. Ta hor on naitzen bera batzokidxe garbittuten.
- Luzero-edo?
- Luzia: Bera garbittu arte. Ta presuek oten ezan dizen manda baten, nazionaliste presuek manda baten oten ezan dizen.
- Ta zikinkeri asko?
- Luzia: Atziñeko politikie ta oingo politikie ez da bardiñe.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-22

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com